

Kalitate handiko Errezil sagarrak Gabirian

XVIII. Errezil Sagar Lehiaketa eta Baserriko Produktuen Azoka jendetsua izan ziren atzo

GABIRIA

Anttoni Murgiondo eta Iñaki Maizi eman zitzaizen sagar hoberen sari nagusia, Juan Murua, Pedro Iztueta eta Xabier Arratibel gailendu arren

ARANTZAZU BAZTARRIKA

GABIRIA. XVIII. Errezil Sagar Lehiaketa eta Baserriko Produktuen Azoka atzo izan zen Gabirian. Eguraldia guztiz aldekoa izan ez zen arren, bisitariak ez ziren kikildu eta bertan postua jarri zuten ekoizleek salmentak izugarri onak izan zirela zioten.

Lehiaketa nagusian, Errezil sagarrarenean alegia, Juan Murua, Pedro Iztueta eta Xabier Arratibel gailendu dira. Baina, lehenengo biek iaz ere saria jaso zutenaz, eta bi urte jarraian ezin direnez ekoizle berak saritu arauen arabera, aurtengoa, epaiaren ustez hurrengo sagar hobereak zituztenei eman zitzaizkien, Anttoni Murgiondo eta Iñaki Maizi.

Sagargoxorik onena berriz, Beasaingo Kattalin jatetxeko sukaldariaren eta Gabiriako Ostatuko sukaldariaren aburuz, M^a Angeles Igarizabalek eginikoa izan zen.

Eta Goierrri Beheko Ezti lehiaketari lotuta, aurtengoa bost sari banatu ziren Gabirian. Lehenengo hiruak, epaimahaikoko kideek berain ustez hiru ezti onenak aurkeztu zituztenei eman zitzaizkien: Ageda Zeberio izan zen lehena; bigarrena, Bittor Murgiondo; hirugarrena berriz, Gabino Murua. Laugarren saria, ezti guztien dastaketan parte hartu zuten azokako bisitarien artean eginiko zozketakoa izan zen, irabazlearen zenbakia 354 da.

Eta bostgarrena berriz dastaketa horretan gehiena gustatu zen eztiaren ekoizleari eman zitzaion, Josu Txintxurretari.



Errezil sagar, sagar goxo eta ezti lehiaketarako irabazleak euren sariak jaso eta gero. **ARGAZKIAK BAZTARRIKA**



Errezil sagar ale bikainak saltzeko eraman zituzten ekoizle ugariak.



Eztiaren ezaugarriak ezagutzeko aukera egon zen atzokoan.

AZOKA BEREZI JENDETSUA LARRUNARRI PILOTALEKUAN

AMEZKETA

Kultur Hamabostaldiari amaiera emateko azoka berezia antolatu zen Amezketan. Larrunarri pilotalekua bisitariz bete zen postuetan eskaintako artisautza produktuak zein jakiak ikusteko eta erosteko. Plazan, gainera, herriko base-rietako animaliak zeuden ikusgai; zalduak, ardiak, txakurrak eta arraza ezberdinetako oiloak, haurrak eta gaztetxoak erakarri zituztenak.



YARZA